

Udalentzako gomendioak, emakumeek tokiko gobernuetan parte hartzeko baldintzak errazteko

2023ko udal hauteskundeetatik sortutako tokiko gobernu berrien eraketaren aurrean, udalei dei egiten diegu tokiko gobernuetan erabakiak hartzerakoan, emakumeen parte-hartzea eta haien eragina areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egitera. Izan ere, gaur egun ere **agerikoa da desabantaila-baldintzak daudela**, eta, gehienbat, emakumeei eragiten dietela tokiko politikan dituzten karguetan, hala nola:

- **erresistentziak eta inertziak**, eremu guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin parte hartzea mugatzen duten botere-espazioak partekatzea eta lagatzea eragozten dutenak;
- **zaintza-lanen eta zaintza-erantzukizunen banaketa desorekatua**, emakumeei eragina egiten diena, herritartasunaren erabateko egikaritza baldintzatzen duena, kargu publiko bat hartzea, alegia;
- **estereotipoak eta aurreiritziak**, emakumek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen dutenak;
- politikan dauden emakumeen aurkako **indarkeria- eta jazarpen-moduak** erabiltzen dira, kargu publikoetan duten sinesgarritasuna eta zilegitasuna ahultzeko.

Horregatik, EUELEko Berdintasun Batzordeak, Euskadiko tokiko emakume hautetsien sarea den Basqueskola Sareak proposatuta, euskal udalei **gomendio** bat egiteko beharra eta aukera ikusten du, neurri eta ekintza hauek abian jartzeko, mantentzeko eta bultzatzeko ahalegina egin dezaten:

- **Jokabide/tratu onaren kodeak** onartzea, emakumeen eta gizonen berdintasun erreal eta eraginkorraren printzipioa eta aniztasunarekiko errespetua esplizituki aipatuz, diskriminazio edo jazarpen sexistaren mota oro desagerraraziz.
- **Tokiko politikan emakumeenganako indarkeria eta jazarpen sexistaren aurkako adierazpena** rekin bat egitea ([Ikus Adierazpena hemen](#))
- Politikagintzan **denboraren erabilerak errazionalizatzeko neurriak** abian jartzea ([Ikus dokumentua hemen](#)), adibidez:

- Kargura egokitzeko denborak murriztea, agintaldi baten eta hurrengoaren artean **Botereak Hartu eta Transferitzeko Protokoloen** bidez.
 - Teknologia berrien bidez **online parte hartzeko** moduak bultzatzea.
 - Hautetsien **liberazioen erabilera sustatzea** baimendutako mugaraino, politika-, lanbide- eta familia-arloko erantzukizunak hobeto uztartzeko.
- Udaletako emakume hautetsi guztiei **VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA** sareari buruzko informazioa helaraztea, ahalduz eta eragiteko espazio gisa.
 - **Gizon politikoei** berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka inplikatzen **deia egitea**, besteak beste, Gizonduz programan aktiboki parte hartuz.

▶ **Virginia Woolf Basqueskola**

Euskal emakume hautetsien "gune propioa"

Emakume alkate eta zinegotzien ahalduz eta eragin politikorako sareak, etengabe, atek zabalik ditu.

www.virginiawoolfbasqueskola.eus/eu

Harremanetarako: basqueskola@eudel.eus / 944.23.15.00

▶ **Gizonduz**

Gizon politikarientzako programa da eta gizonak berdintasun-politiken garapenean inplikatzearen alde lan egiten du.

Gizonduz: Informazioa (Emakunde/euskadi.eus)

Harremanetarako: emakunde@euskadi.eus / 945.01.67.00